

1.Saioa: Non dago Euskal Herria?



Michael hegazkinean dago. Aldizkari bat du eskuan. Irakurri nahi du. Zuk?

Michael viaja en avión a Euskal Herria. La azafata le ha entregado una interesante revista. Léela, te interesará.

Irakurmena

Irakurri testua eta azpimarratu ulertzen dituzun hitzak
Lee el texto y subraya las palabras que hayas entendido.

Non dago Euskal Herria?

Euskal Herriak
3.000.000 biztanle du.

Euskal Herrian mendi
asko daude.

Euskal Herrian hiru
hizkuntza daude
euskara, gaztelera eta
frantsesa. Euskara eta
gaztelera hego Euskal
Herrian eta euskara eta
frantsesa ipar Euskal
Herrian.



Euskal Herria
Europan dago.

Gipuzkoako hiriburua
Donostia da. Bizkaiko
hiriburua Bilbo da.
Arabako hiriburua
Gasteiz da. Nafarroako
hiriburua Iruñea da,
Lapurdikoko hiriburua
Baiona da, Zuberoako
hiriburua Maule da eta
Behe Nafarroako
hiriburua Donibane
Garazi da.

Zazpi probintzia daude.
Nafarroa, Bizkaia,
Araba eta Gipuzkoa
hegoaldean eta
Lapurdi, Zuberoa eta
Behe Nafarroa
iparraldean.

Euskal Herrian %30 euskalduna da,
%20 ia euskalduna eta %50
erdalduna da.

Ariketa

Non daude probintziak?

Testuak irakurri, mapa ikusi eta jarri probintzien izena.

Una vez leídos los textos fíjate en el mapa de la izquierda y escribe los nombres de las provincias vascas en el mapa de la derecha.

Ikusi hiriburuak



eta idatzi probintziak



hiztegia

Zer adierazi nahi dute azpiko hitzek?
¿Qué significan las palabras en negrita?

Zer da **BIZTANLE**?
Zer da **HIRIBURUA**?
Zer da **DAGO**?

Zer da **HIZKUNTZA**?
Zer da **ZAZPI**?
Zer da **ETA**?

Zer estrategia erabili duzu jakiteko? Egin zerrenda
¿Qué estrategia has utilizado para saberlo? Enuméralas

NON

Testuan **NON** kasuak azpimarratu ditugu. Begiratu azpiko teoriari.
Hemos subrayado la letra -n en el texto anterior para introducir la declinación **NON** que significa “en donde”. Fíjate en los siguientes ejemplos.

Jon Bilbon dago. Jon está **en** Bilbao
Mikel Donostian dago. Mikel está **en** Donostia.
Euskal Herria Europan dago. Euskal Herria está **en** Europa.
Maite Londonen dago. Maite está **en** Londres.
Maria Parisen dago. Maria está **en** Paris.

Euskal Herriko Hiriburuak

ariketa

Erantzun galderak NON kasua erabiliz
 Responde a las preguntas utilizando el caso NON



- Non dago Bilbo?
- Non dago Donostia?
- Non dago Maule?
- Non dago Gasteiz?
- Non dago Baiona?
- Non dago Donibane Lohitzun?
- Non dago Iruñea?

Binaka - trabajo en parejas



Asmatu beste hiru galdera eta galdetu ikaskideari.
 Inventa tres preguntas y realízalas a tu pareja.

A ikaslea	B ikaslea
Non dago New York? Non dago Dakar? Non dago Pekin? Non dago Mosku? Non dago Estokolmo? 1. 2. 3.	Non dago Bilbo? Non dago Donostia? Non dago Iruñea? Non dago Ankara? Non dago Praga? 1. 2. 3.



Non dago...?


Irakasleak Power point aurkezpen bat jarriko dizu. Saiatu Michael eta Ana, gure lagunak, non dauden asmatzen.

El profesor te pondrá una presentación power point. Tu labor será la de adivinar en qué ciudad de Euskal Herria se encuentran nuestros amigos Michael y Ana.

Non dago leku hau?

¿Dónde se encuentra este lugar?




Bilbon	Donostian



Hiriko lekuak

Hiztegia

Ikusi azpiko irudiak. Leku izenak ikasiko ditugu.
Fíjate en las imágenes. Aprenderás nombres comunes de lugar.



Leku ezagunak

Lotu euskal hitza eta munduko lekua.
Relaciona la palabra en euskara y el lugar.

HERRIA	CAMBRIDG
HIRIA	ATLANTIKOA
HIRIBURUA	TIMES SQUARE
ZUBIA	MERCEDES
ELIZA	PARIS
IBAIA	GOLDEN GATE
ITSASOA	SCIENTOLOGY
HONDARTZA	NILO
AUTOA	MALIBU
KALEA	BAOBAB
MENDIA	PIAZZA SAN PIETRO
ZUHAITZA	SHANGAI
PARKEA	BETHLEHEM
ZABORTEGIA	YELLOSTOWN
ENPARANTZA	PEOPLE
BIZTANLE	IBM
LANTEGIA	PAYATAS
UNIBERTSITATEA	ACONCAGUA

Erantzun galderak. Responde las siguientes preguntas.

- Non dago San Pietro plaza?
- Non dago Aconcagua mendia?
- Non dago Kontxako hondartza?
- Non dago Golden Gate zubia?

Adjektiboak

Ea beheko adibideekin asmatzen duzun adjektiboen esanahia.
Lee los ejemplos y adivina el significado de los adjetivos.



Euritsua



lehorra



hotza




Beroa




zabala



dotorea




Txikia



handia



itsusia



polita



zoragarria

ariketa

Jarri leku bakoitzari iruditzen zaizun adjektiboa
Completa las frases utilizando el adjetivo más adecuado.

London _____ da
Sahara _____ da
Siberia oso _____ da
Senegal _____ da
Amazonas ibaia oso _____ da
Norvegiako fiordoak _____ dira.
Errusia oso _____ da
San Marino oso _____ da.
Paris oso _____ da.
Managuako zabortegia _____ da.
Argentinako Patagonia oso _____ da.

zoragarria
itsusia
txikia
beroa
polita
lehorra
dotorea
zabala
euritsua
handia
hotza

Binaka- trabajo en parejas



Hiri sekretua

Egin hiru esaldi eta deskribatu hiri bat. Beste bikoteak asmatzen saiatuko dira.
Haced tres frases para describir una ciudad. Vuestros compañeros procurarán adivinar de qué ciudad se trata.

Hirian galduta

Osatu elkarrizketak. Jarri izena esaldietan.

Completa las conversaciones con el nombre correspondiente.



Eliza



hotela



kafetegia



kiroldegia



erietxea



taberna



Udaletxea



eskola



Zinema



lantegia



lorategia



geltokia

Zenbat lore!

Belarra berde-berdea dago eta lore asko daude.

Bai, oso polita da _____ hau

Non dago autobusa? Berandu da!

_____ beteta dago, jende asko dago.

Zer da hori?

Hori?

San Juan _____ da. Gaur meza dago.

Aizu, non dago _____?

Hor, Euskal Herria kalean. Gaur "Matrix" filma dago.

Mesedez, haur hau gaixo dago. Non dago _____?

Hor haur asko daude. _____ da.

Michael Euskalduna _____ ean dago. Leku hau oso famatua da izar asko ditu. Bilbon dago.

Eta hori zer da?

Hori... bandera.

Ez, banderak ez. Leku hori.

A! Leku hori _____ da.

Eta hori zer da?

Hori, leku handi hori? Hori _____ da.

Hor daude frontoia, igerilekua, gimnasioa.

Eta eraikuntza hori zer da?

Zein, handi hori?

Bai, itsusi hori.

Hori _____ da. Eta horiek langileak.

_____ hau oso txarra da. Ez dago ardorik, ez dago zerbezarik...

irakurmena

Irakurri testutxoak. Osatu hirugarren testua eta kontatu zure ikaskideari.
Lee los textos, completa el tercer párrafo y cuéntaselo a tu compañero.

A ikaslea: Munduko hiriak

COPACABANA

Copacabana Brasilen dago. 300.000 biztanle du. Hondartza zoragarria du, hondartzaren izena Princesita del Mar da. Copacabana Rio de Janeiroko auzoa da. Jatetxe, zinema, banku eta sinagoga asko daude. Copacabana ondoan mendia eta hondartza daude.

BERNA

Suitzako hiriburua da. 350.000 biztanle du. Suitza Mittellanden dago. Ibaia Aar da. Bernan 11 ospitale daude. Suitzako Alpeak hurbil daude. Oso hiri dotorea da. Bernan museo eta kulturgune asko daude. Bernan dago Universal Postal Union.

DAKAR

Dakar Senegalgo hiriburua ____ . 2.079.000 ____ du. Dakar Senegalen ____ . Oso portu garrantzitsua du. Dakarren mezkita asko ____ . Oso hiri polita eta handia ____ . Hondartza _____ daude.



irakurmena

Irakurri testutxoak. Osatu hirugarren testua eta kontatu zure ikaskideari.
Lee los textos, completa el tercer párrafo y cuéntaselo a tu compañero.

B ikaslea: Euskal Herriko hiriak

IRUÑEA

Iruñea Nafarroako hiriburua da. 200.000 biztanle du. Iruñeko ibaia Arga da. Oso ospetsuak dira Taconerako lorategia, Iruñeko harresia eta Gaztelu enparantza. Uztailaren 7an San Ferminak dira. Iruñeko entzierroa oso famatua da. Iruñean oso Unibertsitate handia dago, eta Klinika Unibertsitarioa ere bai. Nafarroako ardo gorria oso ona da. Iruñea zoragarria da. Hiri lehorra da.

GASTEIZ

Gasteiz Arabako hiriburua da. 230.000 biztanle du. Oso ospetsuak dira Artium museoa, Eusko Jaurlaritza, Ama Zuriaren enparantza. Europako lantegi asko daude; Mercedes, Daewoo, Michelin... . Oso saskibaloitza ona dago TAU-BASCONIA. Hiria dotorea eta berria da. Gasteiz hotza eta zabala da.

BAIONA

Baiona Lapurdiko hiriburua ____ . 44.300 biztanle ____ . Oso _____ dira Baionako katedrala eta euskal museoa. Baionan denda asko ____ . Oso hiri polita ____ .

Idatzi

Orain zure txanda da. Deskribatu zure herria.

Llegó tu turno. Describe tu pueblo o ciudad. Si quieres puedes describir otro lugar.



Ikasgai honetan hau ikasi duzu

Deskribapen laburrak egiten.

Euskal Herriko probintziak eta hiriburuak


Leku izenak: hondartza, zubia...

Non dago? Zer dago? Galderei erantzuten.

Nor eta Non deklinabidea singularrean.

Adjektibo batzuk

DA, DIRA, DU, DAGO eta DAUDE aditzak



Zalantzarik baduzu, apuntatu hemen eta galdetu Irakasleari.

Si te surge alguna duda, apúntala aquí y Pregúntasela al profesor,-a.

Jarri aditza

Berlin Alemanian _____.
Donostia oso hiri polita _____.
Donostian hiru hondartza _____.
Plaza hori oso polita _____.
Horiek zuhaitzak _____.
Non _____ Madagaskar?
Hori ez _____ udaletxea.

Jarri deklinabidea

Udaletxe _____ Euskadi plazan dago.
Jendea hondartza _____ dago.
Hiri _____ polit _____ da.
Kale hori ez dago Gasteiz _____.
London euritsu _____ da.
Lantegi _____ hori oso itsusia da.
Paris _____ ez dago hondartzarik.
Txori _____ arbola _____ dago.
Ospitale _____ oso handia da.
Euskal Herria Europa _____ dago.

Egin galdera

_____ dago irla hori?
_____ dago herriko plazan?
_____ da emakume hori?
_____ dago Montevideo?
_____ dago Londresen?

BADAKIZU?

¿Sabias que..? Do you know? Weisst du, Saviez—vous que? Você sabia?

- Euskal Herrian hiru hizkuntza daude: euskara, gaztelera eta frantsesa. Euskara eta gaztelera Hego Euskal Herrian eta euskara eta frantsesa Ipar Euskal Herrian.
- Euskal Herrian %30 euskalduna da, %20 ia euskalduna eta %50 erdalduna da.
- Donostiako zinemaldia oso ospetsua da.
- Guggenheim museoa Bilbon dago.
- Nafarroako ardo gorria oso ona da.
- Iruñeko San Ferminak eta zezenak interesgarriak dira.
- Iparraldeko baserriak zoragarriak dira.
- Euskal Herriko bandera IKURRINA da. Zuria, gorria eta berdea.
- Tiago Spliter Gasteizko Tau-Basconiako saskibaloia jokalaria da.
- Donostian hiru hondartza daude. Kontxakoa, Zurriolakoa eta Hondarretakoa.
- Bilbon metroa eta tranbia daude.
- Euskal Herria Europan dago.

















Ariketa osagarria

























ariketa

Lotu pertsonaia eta adjektiboa.
Relaciona el personaje con el adjetivo.

Lotu lekua eta adjektiboa.
Relaciona el lugar con el adjetivo.

PERTSONAK			LEKUAK		
	Claudia Schiffer	TXIKIA		India	ZURIA
	Jordaniako Rania	ZABALA		Groenland	GORRIA
	Magic Johnson	POLITA		Atacama (Txile)	BEROA
	Mr Bean	HANDIA		Hawai	ZORAGARRIA
	Dani de Vito	DOTOREA		Macchu Picchu	HOTZA
	Schwarzenegger	BERDEA		Egiptoko itsasoa	EURITSUA
	Hulk	ITSUSIA		Suitza	LEHORRA

1.Saioa: Non dago Euskal Herria?

<p>KOLDO</p>  <p>- Nor da hau? - Hau, Koldo da.</p>	<p>IZASKUN</p>  <p>- Nor da hau? - Hau, Izaskun da.</p>	<p>MIKEL</p>  <p>- Nor da hau? - Hau, Mikel da.</p>	<p>BEGOÑA</p>  <p>- Nor da hau? - Hau, Begoña da.</p>
 <p>- Zer da Koldo? - Koldo, gizona da.</p>	 <p>- Zer da Izaskun? - Izaskun, emakumea da.</p>	 <p>- Zer da Mikel? - Mikel, mutila da.</p>	 <p>- Zer da Begoña? - Begoña, neska da.</p>
 <p>- Zer da hori? - Hori, burua da.</p>	 <p>- Zer da hori? - Hori, begia da.</p>	 <p>- Zer da hori? - Hori, eskua da.</p>	 <p>- Zer da hori? - Hori, liburua da.</p>
 <p>- Zer da hura? - Hura, herria da.</p>	 <p>- Zer da hau? - Hau, bidea da.</p>	 <p>- Zer da hura? - Hura, mendia da.</p>	 <p>- Zer da hori? - Hori, autoa da.</p>
 <p>- Hau, Koldo da? - Bai, hau Koldo da.</p>	 <p>- Hau, emakumea da? - Bai, hau emakumea da.</p>	 <p>- Hau, neska da? - Ez, hau ez da neska; hau mutila da.</p>	 <p>- Hau, gizona da? - Ez, hau ez da gizona; hau neska da.</p>
 <p>- Hura herria da? - Bai, hura herria da.</p>	 <p>- Hau, autoa da? - Ez, hau ez da autoa; hau etxea da.</p>	 <p>- Hau, mendia da? - Ez, hau ez da mendia; hau bidea da.</p>	 <p>- Hura etxea da? - Ez, hura ez da etxea; hura mendia da.</p>

Zer da Koldo?

.....

Koldo emakumea da?

.....

Nor da emakumea?

.....

Zer da Mikel?

.....

Begoña mutila da?

.....

Non dago begia?

.....

Non dago zuhaitza?

.....

Non dago autoa?

.....

Koldo gaztea da?

.....

Herria handia da?

.....

Mendian etxe asko dago?

.....

BAKARKA 1,26. or.